

Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak industria-robotika enpresan nola aplikatu azaltzeko jardunaldia antolatu dute

- *Jardunaldia Robotikak laugarren industria iraultzan zer paper jokatzeko duen ezagutu nahi duten enpresei zuzenduta egon da.*
- *Jardunaldi hau "Gipuzkoa Tecnológica" programaren 16. edizioan barneratzen da.*
- *Hitzaldiak Miramongo Teknologia Elkartegiko Eraikin Nagusian burutu dira eta 150 pertsona baino gehiago izan dira bertan.*

Donostia - 2018ko urriaren 24a - Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, SPRI eta Miramon Enpresa Digitalarekin batera jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute **"Robotak 4.0 Industriaren zerbitzura"** izenburupean. Jardunaldia gaur, asteazkena, urriak 24, burutu da Donostiako Miramongo Teknologia Elkartegiko Eraikin Nagusian eta 150 pertsonatik gora izan dira bertan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Tecnológica"ren hamaseigarren edizioan barneratzen da eta enpresei zuzendua egon da, eta hauei robotikak laugarren industria iraultzan zein paper jokatzeko duen ezagutu araztea izan du helburu: zein den egungo egoera eta bere erronkak azaldu dituzte eta batez ere teknologia hau enpresetan nola aplikatu erakutsi dute, beti ere kontutan izan da industria produktibitatea ezin dela ulertu gizakien eta makinaren arteko lankidetzarik gabe.

4.0 industriaren estrategiaren barruan, bilakaerarik handieneko arloetako bat industria-robotika da. Robotika horri esker, lan errepikakor eta arriskutsuak automatizatu eta saihestu egiten dira, pertsonen balio eta sormen handiagoko lanak egin ditzaten. Gero eta zorrotzagoa den egungo merkatuan, bizkor erantzun behar zaie eskaerei. Horretarako, gure enpresen produktibitatea, efizientzia, kalitatea, lehiakortasuna, malgutasuna, kostuen aurrezpena eta fidagarritasuna hobetzea ahalbidetzen duten teknologiak eta funtzionalitateak eskaintzen ditu robotikak.

Jardunaldia sektoreko adituen hitzaldiekin osatu da: hornitzaileak, ikerketa zentruak eta unibertsitateak. Lehenengo hitzaldia **Jorge Juan Gil Nobajasek**, *Titular de Ingeniería de Sistemas y Automática*ko Irakasleak burutu du industria-robotika Unibertsitatearen ikuspegitik aztertuz. Jarraian **Álvaro Bertelsenek**, *Viconteche*ko *Ikerlari Seniorraren* txanda izan da. Berak onartu duenez robotika ondo finkatuta dago industria, manufaktura eta logistika arloetan baina osasun sektorean oraindik gaituta gabeko gaia dela adierazi du, "erronkaren zati handi bat sentsore, eragingailu eta gaitasun kognitibo hobekuntza izatean datza horrela robotak ziurtasun gehiagorekin aritu daitezke osasun giroan, kontutan izan behar delako sektore hau industrialak baino arriskutsuagoa dela eta ez jakintasun giro batean aritzen garela" eta gogora arazi du

sentsore arloko eta adimen artifizial arloko teknologien azken aurrerapenek erronka honetan aurrera egiteko aukera ematen dutela, horrela osasun zaintzarako roboten arrakasta handitu daitekeelarik. Hurrengo hitzaldia **Loreto Susperregiren**, *IK4-Teknikerako Robotika Koordintzailearen* esku egon da. Bere mintzagaia aplikazio aurreratuak sortzeko aukera ematen duten robotika kolaboratzaileak eta teknologiak izan da, horretarako “robotika berriak” ematen dituen aukera teknologikoak azaldu ditu eta baita aurkitzen eta garatzen ari diren aplikazioak ere. **Héctor Herrerok**, *Tecnaliako Ikertzaileak* fabrikaziorako erabiltzen den robotika malguaren aplikazioen gaiari buruz hitzegin du. Bien bitartean, **Cesar Gonzalvok**, *Iruña Tecnologías de Automocióneko Zuzendari Komertzialak*, robotika kolaboratzailea zer den azaldu du ohiko robotikarekin dituen ezberdintasunak erakutsiz. Jardunaldia amaitzeko **Fernando Sánchezek**, *KUKA Iberiako CEOak* robotikaren etorkizuneko joerak aurkeztu ditu.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero hiru jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, Gauzen Interneta, Big Data, 0.4 Industria, Blockchain, Cloud computing, Fabrikazio gehigarria...

Laguntzaileak



Antolatzaileak



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Iruñe Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347